GU

Gizakiaren ezaugarri da
mugimendua, pausoa
harremanetan oinarritzen da
gure bizitza osoa
denon artean egiten dugu
herrialdea, auzoa
luzea eta zabala bada
gizakiak duen soa...
Aukera gisa har daitekeena
zergatik da arazoa?

Herri zaharra denez gurea
arnas luzea duena
pasa ditugu gerrak, goseak
dena galtzearen pena
lur berrietan bilatu nahirik
bizitza, itxaropena
guk badakigu zer den uztea
familia, etxea, dena...
gaur datozenei nola ez eman
guk eskatzen genuena

Euskal Herria esaten zaion
lur honetan zenbat mundu
zenbat jatorri, zenbat kultura
zenbat bizitzeko modu
mende askotan joan etorrian
dabiltzanentzat lur zoru
oraingo mundu berriari ere
atea ireki diogu
bakoitza garen ni hori gabe
ez baikara izango gu

Jon Maia Soria